# ULLIBARRI-JÁUREGUI / URIBARRI-JAUREGI

– ARABA / ÁLAVA –

Donemiliaga udalerriaren barruan dago, Agurain-go kuadrillan. Gasteiztik 20 km-ra dago, eta, hiriburutik Uribarri Jauregiraino heltzeko, N-104 errepidea hartu behar dugu Donostiarantz, Elorriaga, Arkauti eta Ilarratza igaroz. Mataukora heldu baino lehen, Alegia-Dulantzirako irteera hartu behar da, A-3110 bidetik, eta atzean utzi Burgelu, Dulantzi eta Adana. Hortik gutxira, herri erdiraino eramango gaituen bidea ikusiko dugu.

Jauregia herriaren ondoan dago, eta elizako kontuetan harekin lotuta azaltzen da. Jeronimo Aznar gotzainaren dokumentuan, *Guribarri* izenez azaltzen da.

Pertenece al ayuntamiento de San Millán y se enclava dentro de la Cuadrilla de Salvatierra. Dista alrededor de 20 km de Vitoria, desde donde se accede saliendo por la N-104 en dirección a San Sebastián, pasando Elorriaga, Arkaute e Ilárraza. Antes de llegar a Matauco, hay que tomar la salida hacia Alegría-Dulantzi por la carretera A-3110, dejando atrás Elburgo, Alegría y Adana. Poco después una carretera lleva hasta el centro del pueblo.

La localidad se encuentra situada junto al pueblo de Jáuregui, a quien va asociado en términos eclesiásticos, y según su etimología significaría "pueblo nuevo - palacio". En el documento del obispo Jerónimo Aznar aparece con el nombre de *Guribarri*.

## *Gipuzuriko Andre Maria baseliza*
## *Ermita de Nuestra Señora de Guipuzuri*

BASELIZA HORRETARA heltzeko, Uribarri Jauregi eta Jauregi bera ere zeharkatu behar dira. Atzean utzi behar da trenaren geltoki zaharra, eta urtegirantz igo behar da. Hortik aurrera geratzen den bide zatia, 2 km inguru, oinez egitea komeni da, batez ere euri asko egiten duen sasoian.

Baseliza horri Santa Isabel baseliza edo Bisitazioa baseliza ere esaten zaio, eta Lauribasoko mendietan dago, Azilu, Adana eta Jauregirenak diren lurretan. Adanako artxibategiaren arabera, apaizek eraturiko izen bereko kofradia bat egon zen han. Gaur egun ere, oraindik erromeria egiten da han, Santa Isabel egunean. Gain batean dagoen soilgune baten muturrean dago eraikita, eta haraino igotzeko bideak inguratzen du. Baserri-giroko eraikina da, nabe bakarra eta landu gabeko ataria ditu, portada erromanikoa babesten ekialdeko partean. Portada hori ertz bizian molduraturiko bi arkiboltak eta moldura ahurreko deskarga-arku batek eratzen dute; inposta liso baten eta hirunaka jarrita dauden zutabe-pareen gainera datoz. Zutabeok landare-apaindurako kapitel txikiak dituzte, eta harroinik ez.

Eraikinaren beste zati guztian –kanpai-hormarekin batera, XVIII. mendearen amaieran egindakoa– eraikuntza erromanikoaren arrastoak ageri dira. Aipagarriena erakina

EL ACCESO A ESTA ERMITA se realiza atravesando Ullíbarri-Jáuregui y el propio Jáuregui, dejando atrás la antigua estación ferroviaria y ascendiendo hacia la presa. El resto del trayecto, unos 2 km, es recomendable hacerlo andando, sobre todo en época de lluvias, ya que el camino es poco transitable.

Esta ermita también es conocida como de Santa Isabel o de la Visitación de Nuestra Señora, y se encuentra en los montes de Lauribaso, terreno común de Acilu, Adana y Jáuregui. Según los archivos de Adana, gozó de una cofradía del mismo nombre integrada por sacerdotes. Aún hoy se realiza una romería en la celebración de Santa Isabel. Se sitúa en el extremo este de un claro elevado, rodeado por la bifurcación del camino de acceso. Se trata de una construcción rural de una sola nave con pórtico rústico que cobija, en su extremo oriental, la portada románica. Ésta se compone de dos arquivoltas molduradas en arista viva y sobrearco con moldura cóncava, apoyados en una imposta lisa y en dos pares de juegos de columnas de a tres, con pequeños capiteles de decoración vegetal y sin basa.

En el resto de la construcción –datada, junto con la espadaña, a finales del siglo XVIII– se aprecian restos de la construcción románica. Lo más destacable es la hilera de



*Ikuspegi orokorra*

*Vista general*



*Portada*

*Portada*



*Burualdeko leihatea*

*Ventanal de la cabecera*

inguratzen duen harburu lisoen ilara da –bai hegoko horman, atariak babestuta, eta bai iparrekoan, teilatuko hegalaren azpian–. Aipagarria da burualdeko leihoa ere: lehen itsututa zegoena, eta berreskuratu denean arkibolta zorrotzak azaleratu dira –kanpokoa molduratua da, eta barnekoa ertz bizian eginda eta hosto oxkarratuz apaindutako zerrenda apaingarri batekin–. Arkiboltak inposta molduratu baten gainean daude ezarrita, eta inposta hori bi zutabe pareren gainean. Zutabeok fuste lisoa dute, atzapar itxurako harroinak, eta kapiteletan gizonezkoen buruak dituzte, elkarren oso antzekoak: hazpegi gogorrekoak dira, eta adatsa erdibituta dute. Dena dela, barneko ezkerrekoa ezabatuta dago ia guztiz.

Testua eta argazkiak: REA

canes lisos que rodea el edificio –tanto en el muro sur, cobijados por el pórtico, como en el norte, bajo el tejaroz– y la ventana de la cabecera, antes cegada, y cuya recuperación ha permitido sacar a la luz sus arquivoltas apuntadas –la exterior moldurada y la interior en arista viva y con una cenefa decorativa de hojas festoneadas–. Las arquivoltas se apoyan en una imposta moldurada, dispuesta sobre dos pares de columnas de fuste liso, basas de garras y capiteles con cabezas de varón, muy similares entre sí, que presentan rasgos toscos y melena partida, aunque el interior izquierdo casi haya desaparecido.

Texto y fotos: REA

*Bibliografia* / ***Bibliografía***

López de Guereñu, G., 1962, pp. 87, 273; Portilla Vitoria, M. J. *et alii*, 1975, p. 601, fig. 874.